BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1606

AGINDUA, 2022ko martxoaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, 2022-2023 ikasturtean berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuak egiteko dirulaguntzetarako deialdia egiten diena Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten eta honako plan hauetan zehaztutako estrategiari jarraitzen dioten itunpeko ikastetxeei: Lanbide Heziketako V. Euskal Plana, Euskal Hezkuntza Sistemako Digitalizazio Jasangarrirako eta Sistema Adimendunetarako Plan Integrala, eta Euskal Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako, Pertsonen Gaikuntzarako eta ETEen Lehiakortasun Jasangarriari laguntzeko Plan Integrala.

Gaur egungo gizarte- eta ekonomia-egoeran, globalizazioaren eta munduko oreka berriaren ondorioz, enpresek munduko errealitate geoekonomiko berrira egokitu beharra dute, etorkizuneko estrategiak diseinatzean. «Globalizazio» prozesu horretatik, lehiakortasuna sortzen da, enpresentzako lehentasunezko helburu eta balio gisa. Lehiakortasunaren baitan dago enpresen etorkizuna eta, horren ondorioz, enpleguen etorkizuna.

Horrek profil berri bat eskatzen du langileentzat; hain zuzen, gaitasunen hobekuntza argia egiaztatuko duena, eta ez soilik gaitasun teknikoena, bai eta oinarrizko eta zeharkakoena ere; besteak beste, ekimena, erantzukizuna, konpromisoa, autonomia, talde-lana, analisi-gaitasuna, ezagutzaren transmisioa eta erabakitzeko gaitasuna.

Lanbide-heziketak enpresen funtsezko aliatua izan behar du profil profesional berri horien garapenean, ikasleen kualifikazioa eta espezializazioa hobetzen lan eginez.

Lanbide-heziketako ikastetxeentzat erronka garrantzitsu bat da bestelako aukera batzuk sortzera eta enplegua sor dadin erraztera bideratzea beren berrikuntza-sistemak Horretarako, sektore produktiboen –batez ere industriaren– premiei aurre hartzeko gai izan behar dute, produktu berriak, produkzio-prozesu berriak edo suspertzen ari diren sektoreetan jarduera berriak sortzeko aukerak modu proaktiboan identifikatzeko gai izanez, enpresen lehiakortasuna eta ikasleen enplegagarritasuna hobetzea ekarriko dutenak.

Helburu horretan aurrera egite aldera, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak ingurune estrategiko batzuk bultzatuko ditu, hots, ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetza-sareak sortzeko bide emango duten gune batzuk, berrikuntza aplikatuaren esparruko proiektuen garapenean aurrera egiteko. Halaber, espezializazio-arloen garapena sustatuko da. Horretarako, ETEei lagunduko zaie suspertzen ari diren sektoreetan eta teknologia aurreratuetan sar daitezen.

Era berean, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2020 Planak argi eta garbi egin du hazkunde jasangarri eta zentzuzkoa sustatzeko estrategia integralaren alde. Estrategiaren oinarrian, kapital intelektuala eta ezagutzaren kudeaketa efizientea daude, baita espezializazio eta berrikuntza aplikatua ere, enpresetan balioa sortzeko eta lehiatzeko abantailen iturri gisa eta, ondorioz, enplegua sortzeko iturri gisa.

2019ko otsailaren 12an onartutako Lanbide Heziketako V. Euskal Planaren benetako garapena bultzatzeko, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren aldaketak gidatu behar dituen tresna baita plana, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak itunpeko ikastetxe pribatuei dei egiten die, irakasleen bidez ekintza hauek gauzatu ditzaten: plan horren konpetentziak sendotzeko jarduera eta proiektuetan parte hartzea, ingurune teknologikoki oso aurreratuei erantzuna emateko; Lanbide Heziketak enpresei, bereziki ETEei, laguntza ematea sustatzea, eta enpresei ematen zaien

estaldura zabalagoa izan dadin lortzea; Lanbide Heziketatik premia teknologikoen dibertsitateari erantzun sistematiko bat ematea, eta lehentasun teknologikoak eguneratu eta bateratzea Euskadiko berrikuntza-estrategiarekin, tresna sistematikoak ezarriz horretarako.

Era berean, irakaskuntza-gaikuntza digitaleko plan bat behar da, etorkizunerako irakaskuntza-ikaskuntza prozesu berritzaileak eta jasangarriak sustatuko dituena. Horretarako, 2020ko abenduaren 29an onartutako Digitalizazio Aurreratuko Plana diseinatu da, eta horrekin esparru digital berri bat sustatu nahi dugu, ikastetxeei laguntzeko digitalizazioa erabil dezaten hezkuntza-eraldaketarako eta etengabeko hobekuntzarako palanka gisa.

Testuinguru horretan, Euskadik giza garapen jasangarriaren aldeko apustua egiten du, non ekonomia, gizartea, ingurumena eta kultura elkarren artean konektatuta baitaude. Interkonexio eta oreka horiek funtsezkoak dira bizi-kalitate hobea lortzeko, eta Lanbide Heziketak funtsezko zeregina du. Horretarako sortu da Euskal Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako, Pertsonen Gaikuntzarako eta ETEen Lehiakortasun Jasangarriari laguntzeko Plan Integrala, 2020ko abenduaren 29an onartua.

Hezkuntza Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan sartzen da deialdi hau.

Ondorioz, eta bat etorriz azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren VI. tituluarekin (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren esparruan laguntzen eta dirulaguntzen araubidea arautzekoa), Laguntzen eta dirulaguntzen arloko arau-hausteen eta zehapenen erregimenari buruzko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VII. tituluko III. kapituluarekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuarekin, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Deialdi honen helburua da itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasleen liberazio osoa edo partziala finantzatzea, 2022-2023 ikasturtean honako plan hauei lehentasunez jarraitzen dieten berrikuntza-proiektuak egiteko: Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana; Euskal Hezkuntza Sistemako Digitalizazio Jasangarrirako eta Sistema Adimendunetarako Plan Integrala, eta Euskal Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako, Pertsonen Gaikuntzarako eta ETEen Lehiakortasun Jasangarriari laguntzeko Plan Integrala. Horrela, aldi berean, aukera egongo da proiektu horietan ikasitakoak ikasleei, Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako gainerako ikastetxei eta enpresei, batik bat ETEei, helarazteko.

2. artikulua.– Onuradunak.

Agindu honetan araututako dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte ikastetxe pribatuen titular diren pertsona fisiko edo juridikoek, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketako heziketa-zikloak itunduta badituzte 2022-2023 ikasturtean.

3. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

1.– Agindu honen xede diren proiektuak diruz laguntzeko, zazpiehun eta hirurogeita hamar mila euro (770.000) bideratuko da guztira.

4. artikulua.– Parte hartzeko eskakizunak.

Agindu honetako laguntzak lortu ahal izateko, betekizun hauek betetzen direla egiaztatu behar da:

a) Itunpeko ikastetxe pribatua izatea, eta 2022-2023 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematea.

b) Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen duen zigor penal edo administratiboren baten eraginpean ez egotea sexu-diskriminazioa dela-eta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera.

c) Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere. Betekizun biek iraun behar dute emandako dirulaguntzak likidatu arte; beraz, egiaztatu egingo da bete egiten direla bai emateko orduan bai ordaintzeko orduan.

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean ez egotea.

e) Lankidetzako proiektuak badira, kide guztiek bete beharko dituzte betekizunok.

5. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen berrikuntza-proiektuen ezaugarriak.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak jaso ditzaketen proiektuek bat etorri beharko dute, lehentasunez, Lanbide Heziketako V. Euskal Planean eta Gobernuaren Ekintzaren Plangintza Estrategikoko ekimenen barruko planetan zehaztutako espezializazio adimendunaren estrategiarekin. Lotura hori ebidentzien bidez frogatu beharko dute, proiektuaren fitxan, II. eranskinean; izan ere, hori izango da hautaketa-irizpideetako bat. Ikus 11.2.a artikulua.

Dirulaguntzak jaso ditzaketen proiektuen artean, lehentasuna emango zaie arlo hauetako batekin lotuta daudenei:

a) Fabrikazio aurreratua. Prozesuen digitalizazioarekin eta horien simulazioarekin lotuta daudenak. Neurketa-elementuak jasotzen dira, bereziki prozesuko neurketak. Material berriak sartzea. Fabrikazio-prozesu berriak, hala nola fabrikazio aditiboa, diseinutik hasita fabrikaziora eta post-tratamendura arte.

b) Fabrika digital eta konektatua. Zuzenean erlazionatuta digitalizazioarekin eta honako hauei lotutako teknologien eta metodoen aplikazioarekin: IoT/IIoT (Gauzen Interneta / IoT Industriala), IoM (Makinen Interneta), Big Data eta Adimen Artifiziala. Helburua industria-ekipamendu eta -instalazioetan sortutako informazioaren konexioa, monitorizazioa, trazabilitatea, kudeaketa eta/edo tratamendua da, eta, horretarako, sensorizazioa, konektibitatea, zibersegurtasuna, bloke-katea eta adimen artifizialeko datu-tratamendua eta –ustiaketa erabiltzen dira.

c) Efizientzia energetikoa eta energia garbiak sortzea. Sektorearen lehentasunekin lotuta, sorkuntzari dagokionez (eolikoa, olatu-energia eta beste batzuk), eta jasangarritasunari dagokionez, energia-eraginkortasunean oinarrituta (industria-prozesuetan, bizitegi-sektorean eta sare adimendunen kudeaketan aplikatzea).

d) Mugikortasun jasangarria. Mugikortasun adimendun eta jasangarria, Euskadin mugikortasun elektrikoaren ezarpena sustatuko duena, bai gizartean duen erabileraren ikuspegitik, bai beharrezko teknologien garapen industrialaren ikuspegitik.

e) Ingurune birtualak. Ikaskuntza-prozesuan tresna horiek erabiltzearekin lotuta daudenak, enpresetara bideratutako zerbitzu- eta ezagutza-sortzaile gisa. Ikastetxeetako eta ETEetako prozesuak digitalizatzeko bitarteko gisa.

f) Ekonomia jasangarria. Jasangarritasunarekin zerikusia duten balio-kateen digitalizazioan oinarritua, jasangarritasunarekin, ekonomia zirkularrarekin eta bioekonomiarekin zerikusia duten alderdiak baloratuz, nekazaritzaren, itsasoaren eta arrantzaren, ostalaritzaren eta turismoaren, elikagaien industrien, administrazioaren eta kudeaketaren, zuraren eta altzarigintzaren, eraikuntzaren eta obra zibilaren eta abarren familietara begira.

g) Osasuna 4.0. Osasunaren, robotika aplikatuaren eta teknologia humanizatuaren eremuko digitalizazioarekin lotutakoak, bai eta pertsonen zaintzari eta ongizateari aplikatutako baliabide teknologiko berriekin lotutakoak ere.

h) Biozientziak eta bioteknologiak. Osasunarekin, nekazaritzako elikadurarekin eta bioteknologia industrialarekin lotutako konponbideen praktikarekin lotutakoak. Digitalizazio-tresnak inplementatuz, lehiakortasun handiagoa lortzeko bitarteko gisa.

2.– Proiektuak banaka gara ditzakete onuradun izan daitezkeenek, agindu honen 2. artikuluan zehaztutako moduan; bestela, hainbat onuradunen artean ere gara daitezke, lankidetzan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 11.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Proiektu bat lankidetzakoa dela ulertuko da, baldin eta gutxienez bi onuradunek parte hartzen badute proiektua sortzen eta gauzatzen, betiere deialdi honetako eskakizun guztiak betetzen badituzte.

3.– Lankidetzako proiektuak badira, eskabidean berariaz adierazi beharko da elkartutako kideek zein ordezkari edo ahaldun bakar izendatu duten, eta behar adina ahalmen izan behar ditu onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko. Elkartea ezingo da desegin, harik eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 39. artikuluan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

4.– Aurkeztutako proiektuen iraupena 209 ordukoa izango da gutxienez, eta 2.504 ordukoa gehienez.

5.– Deialdi honetako dirulaguntzak jaso ditzaketen proiektuek honako esparru hauetako batekoak izan behar dute:

a) Digitalizazioa: Berrikuntza teknologikoaren eta sistema adimendunen esparrua.

Esparru horretan sailkatzen dira garapen teknologikoak egiteko helburu orokorra duten proiektuak. Garapen teknologikoa (digitalizazioa) behar duten proiektuak dira, baina emaitza lehenetsitako eta 5. artikuluko 1. puntuan deskribatutako lehentasun hauekin lotutako edozein sektoretan aplika daiteke:

– Fabrikazio aurreratua.

– Fabrika digital eta konektatua.

– Mugikortasun jasangarria.

– Ingurune birtualak.

– Euskal Hezkuntza Sisteman Digitalizazio Jasangarrirako eta Sistema Adimendunetarako Plan Integrala inplementatzeko proiektuak, hala nola: bideokonferentziarako irtenbide aurreratuak, mahaigainaren birtualizazioa, euskarri-plataformak, ERPen inplementazioa, 5G, blockchain, errealitate birtuala, areagotua eta mistoa, konektibitate- eta komunikazio-soluzioak (5G/WIFI6...),

datuak atzitu eta ustiatzea (Smart data, Big data, IA...) Azken finean, Euskal Hezkuntza Sisteman Digitalizazio Jasangarrirako eta Sistema Adimendunetarako Plan Integrala inplementatzeko euskarri diren guztiak.

b) Jasangarritasuna: Biozientzien eta jasangarritasunaren esparrua.

Eremu horretan sailkatzen dira jasangarritasunarekin, eraginkortasun energetikoarekin, energia garbiak sortzearekin, eraikuntza jasangarriarekin eta bioteknologiarekin zerikusia duten proiektuak. Proiektu horien helburu nagusia, aplikazio-eremua eta garapen nagusia bideratuta daude zenbait garapen egitera, 5. artikuluko 1. puntuan deskribatutako lehentasun hauekin lotuta daudenak:

– Energia-efizientzia, energia garbiak sortzea eta sare adimendunak digitalizatzea.

– Ekonomia jasangarria. Jasangarritasunarekin lotutako balio-kateen digitalizazioan oinarritua.

– Osasuna 4.0. Osasun esparruko digitalizazioarekin lotutakoa.

– Biozientziak eta bioteknologiak. Digitalizazio-tresnak inplementatuz, lehiakortasun handiagoa lortzeko bitarteko gisa.

– Euskal Hezkuntza Sisteman Digitalizazio Jasangarrirako eta Sistema Adimendunetarako Plan Integrala inplementatzen duten proiektuak, hala nola: etxe adimenduna, nekazaritzako elikadura 4.0, sukaldaritza jasangarria, ekonomia zirkularra...

– Euskal Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako, Pertsonen Gaikuntzarako eta ETEen Lehiakortasun Jasangarriari laguntzeko Plan Integrala ezartzen duten proiektuak.

6.– Bikoiztasunak saihesteko, ez dira diruz lagunduko Lanbide Heziketako Sailburuordetzak beste programa edo dealdi batzuen bitartez lantzen dituen proiektuak. Lanbide-heziketan beste programa edo dealdi baten bitartez dagoeneko lantzen ari den proposamen bat aurkezten bada, erabakiko da proposamen hori ez dela dealdiaren xedera egokitzen, eta horixe adieraziko da proposamenaren balorazioan.

Hauek dira Lanbide Heziketako V. Euskal Planean jasota dauden eta beste programa batzuen bidez lantzen diren esparruak (beraz, dealdi honetan ezin izango dute dirulaguntzarik jaso):

– Heziketa integratuaren esparrua; helburuak: Egokitzapena eta espezializazioa, Berrikuntza pedagogikoa eta Bikaintasuna eta kalitatea.

– Ekintzailetza aktiboaren esparrua; helburua: jarduera ekintzailea indartzea.

– Nazioartekotzearen esparrua; helburua: lanbide-heziketa nazioartean zabaltzea.

– Lanbide-heziketako ikastetxeen esparrua; helburuak: Ikastetxe-eredu berriak, Ikastetxeak ezagutza-unitate gisa, eta Lanbide-heziketako ikastetxe espezializatuen sarea.

6. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Jarraian adierazten diren gastuak lagundu ahal izango dira diruz:

a) Irakaskuntza-jarduera (zuzeneko irakasletza) eta hari lotutako bestelako jarduera osagarriak garatzeko ordezko langileak kontratatzeko kostuak, betiere jarduera horiek garatzen badira diruz lagundutako proiektua egiteko liberatutako irakasleei esleitutako orduetan.

b) Irakaskuntza-jarduera (zuzeneko irakasletza) eta hari lotutako bestelako jarduera osagarriak garatzeko ikastetxeak dituen irakasle propioen kontratua luzatzeko kostuak, betiere jarduera

horiek garatzen badira diruz lagundutako proiektua egiteko liberatutako irakasleei esleitutako orduetan. Diruz lagundutako proiektua egiten duten irakasleek ikastetxeko irakasle izan behar dute 2021-2022 ikasturtean.

c) Irakaskuntza-jarduera (zuzeneko irakasletza), hari lotutako bestelako jarduera osagarriak eta diruz lagundutako proiektua garatzeko ikastetxeak dituen irakasle propioen kontratua luzatzeko kostuak. Diruz lagundutako proiektua egiten duten irakasleek ikastetxeko irakasle izan behar dute 2021-2022 ikasturtean.

Deialdi honen ondoreetarako, egotz daitezkeen kostutzat hartuko dira ordainsariak eta erakunde eskatzailearen konturako karga sozialak.

2.– Dirulaguntza jaso dezaketen orduei dagokienez, lanaldi osoko liberazio baterako, gehienez ere, 726 eskola-ordu eta 526 ordu osagarri egotz dakizkioke proiektuari. Ordezko langileak kontratatzeko, berrogei (40) euro/ordu izango da diruz lagundu daitekeen eta proiektuari egotz dakiokeen gehieneko orduko kostua, irakasleei dagokienez. Lanaldi partzialeko liberazioak izanez gero, proiektuan gehienez ere diruz lagunduko den ordu-kopurua lanaldi osorako ezarritako gehieneko kopuruaren proportzioan kalkulatuko da.

3.– Diruz lagundu daitezkeen gastuen estaldura-aldia diruz lagundutako jarduera hasten denetik amaitzen den arte zenbatuko da, betiere diruz lagundu daitekeen aldiaren barruan, hau da, 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arte.

7. artikulua.– Laguntzak emateko prozedurak.

1.– Proiektuak bi taldetan sailkatuta daude, beren esparruaren arabera (Digitalizazioa: berrikuntza teknologikoaren eta sistema adimendunen esparrua; eta Jasangarritasuna: biozientzien eta jasangarritasunaren esparrua), eta behin proiektuak onartzeko eta baloratzeko fasea bukatuta, lehentasunaren arabera ordenatuko dira, esparru bakoitzean puntu gehien lortu dutenetatik gutxien lortu dutenetara. Berdinketarik gertatuz gero, handitik txikira ordenatuko dira proiektuak, honako artikulu hauetan ezarritako irizpideen arabera lortutako puntu kopuruari erreparatuz: 11.3.a), proiektuaren egokitasunari buruzkoa; 11.3.c), proiektuaren norainokoari eta eskalagarritasunari buruzkoa, eta 11.3.g), agindu honetan proposatutako helburuen koherentziari eta anbizioari buruzkoa. Oraindik ere berdinduta baleude, dagokion eskabideak erregistroan duen antzinatasunari erreparatuz ebatziko da.

2.– Proiektuak esan bezala ordenatuta, eta hala ezarritako lehentasunari jarraikiz, dagokion dirulaguntza esleitzeari ekingo zaio. Horretarako, ezarritako balorazio-irizpideak aplikatuko dira, deialdiaren zuzkidura agortu arte, hala badagokio. Dirulaguntza modu diferentean eta independentean banatuko da proiektuak sailkatzen diren bi esparruetako bakoitzean, honela: aurrekontuaren % 60 Digitalizaziora bideratuko da (Berrikuntza teknologikoaren eta sistema adimendunen esparrua), eta % 40 Jasangarritasunera (Biozientzien eta jasangarritasunaren esparrua).

3.– Esparru batera bideratutako aurrekontua agortzen ez bada, balorazio onena izan duten proiektuetara bideratuko da, zeinahi dela ere haien esparrua, eta, betiere deialdiaren gainerako eskakizunak betetzen badituzte.

8. artikulua.– Diruz lagundutako proiektuak egiteko epea.

Diruz lagundutako proiektuak 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean egingo dira.

9. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Ikastetxe interesdunen titularrek –lankidetzako proiektuak badira, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarrek– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko bitarteko elektronikoak erabiliz eskatuko, kontsultatuko eta egingo dituzte prozedura honetako izapide guztiak.

2.– Izapidetze elektronikoa arautzen dute Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak eta Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak; ebazpen horren bidez, Platea E-Administrazioko Plataforma Teknologikoa onartu zen.

3.– Eskabideen eta erantsi beharreko dokumentazioaren ereduak agindu honen eranskinetan daude jasota.

4.– Eskabideak bide elektronikoz nola izapidetu, eskabiderako zer inprimaki erabili behar den, zer dokumentazio-eredu erantsi behar diren eta deialdi honekin lotutako gainerako izapideak nola egin honako helbide elektroniko honetan daude eskuragarri:

www.euskadi.eus/servicios/0120410

5.– Eskabidearen osteko izapideak, justifikazioa barnean dela, honako helbide honetako Nire Karpeta atalaren bidez egin beharko dira: https://www.euskadi.eus/nirekarpeta

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartuta dauden identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide elektroniko honetan daude eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak

Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaria Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoan inskribatu beharko da, helbide honetan:

https://www.euskadi.eus/ordezkariak

10. artikulua.– Eskabideak aurkezteko modua, tokia eta epea.

1.– Eskabideak (I. eranskina), behar bezala eta osorik beteta, modu elektronikoan aurkeztu behar dira, agindu honen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta hilabeteko epearen barruan, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak berariaz eta formalki onartzea. Eskabide bat aurkeztu behar da dirulaguntza eskatzen den proiektu bakoitzeko.

3.– Agindu honen 5.2 artikuluan zehaztutako lankidetza-proiektuak badira, elkarteko ordezkari edo ahaldun bakarrak aurkeztuko du eskabidea. Kide guztiek sinatu behar dute, eta horietako bakoitza hartuko da dirulaguntzaren eskatzailetzat.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.7 artikulua aplikatuz, eskabidearekin batera erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da, honako betebehar hauek egiaztatzeko:

a) Xede bera duten eta bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuei eskatu zaizkien eta, hala badagokio, haietatik jaso diren dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea, eta adieraztea, baiezkoa izanez gero, laguntza eman duen erakundearen izena eta zenbatekoa.

b) Ez egotea dirulaguntza publikoak eskuratu ahal izateko zigor penal edo administratiboren baten edo horretarako ezgaitzen dituen lege-debekuren baten eraginpean, berariaz adierazita sexu-bazterkeriagatik izandakoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera.

c) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.

d) Egiazkoak izatea eskabideko datuak eta emandako dokumentazioa, eta betetzea indarreko araudian dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako baldintzak.

e) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean.

5.– Eskabidearekin batera, proiektu-fitxa aurkeztu beharko da. II. eranskina.

6.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkezteak baimena emango dio Lanbide Heziketako Sailburuordetzari zuzenean egiazta dezan dirulaguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, halakorik egiten baldin badu, betebehar horiek betetzen dituela egiaztatzen duten administrazio-agiriak aurkeztu beharko ditu.

7.– Eskabidea oso-osorik betetzen ez bada, edo eskabidearekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa eta dokumentazio osagarria aurkezten ez bada, ikastetxe interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko epean akatsa zuzentzeko, edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta, gainera, adieraziko zaio, aurrekoa egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen araberako ebazpena eman ondoren.

11 artikulua.– Hautaketa egiteko eta puntuazioa emateko irizpideak.

1.– Lehenengo fase batean, aztertu egingo da proiektu-proposamenek onartuak izateko betekizunak betetzen ote dituzten. Betekizunen bat betetzen ez duten proiektuak hautaketatik kanpo geratuko dira, eta baztertu egingo dira ondorengo balorazio- eta aukeraketa-prozesuetatik.

Jarraian zerrendatuta daude proiektu-proposamenek onarpen-fasean bete behar dituzten betekizunak:

a) Berrikuntza aplikatuko proiektuek bat etorri behar dute deialdiaren esparruarekin, 5.5 artikuluan adierazitakoari jarraituz. Hala ez bada, hautaketatik kanpo geratuko dira.

b) Bikoiztasunak saihesteko, baldin eta Lanbide Heziketako Sailburuordetza beste programa edo deialdi baten bidez lantzen ari bada proiektuaren xedea, proiektu hori deialdi honetako xedearekin bat ez datorrela joko da, 5.6 artikuluan adierazitakoari jarraituz.

c) Proiektuak berrikuntza ekarri behar du berekin, hau da, Euskadiko LHn ezagutza berriak garatu eta txertatu. Hala ez bada, hautaketatik kanpo geratuko da.

d) Deialdiaren xedea Euskadiko Lanbide Heziketaren eremuan kokatzen da, zeinak, berrikuntza-proiektuak garatuta, sostengua emango baitio euskal gizarteari, eta Euskal Autonomia Erkidegoko industriak eraldaketa-prozesu honetan dituen enpresa-beharrei erantzungo baitie. Beraz, proiektuen ustiapen-eremuak, transferentziak eta aplikazioak, baita bazkideei dagokienez ere, Euskal Autonomia

Erkidegoa izan behar dute ardatz. Baldintza hori betetzea nahitaezkoa da, eta, betetzen ez bada, proiektua deialdiaren xedearekin bat ez datorrela joko da, eta ez da baloratuko.

Betekizun horietaz gainera, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

1) Ikusten bada proiektu batzuk osagarriak direla edo antzeko helburuak dituztela, proiektuak batzea proposatuko da, proiektu bakar batean garatzeko. Hala gertatzen denean, baliabideak eta helburuak proiektu bakar bati dagozkionetara egokituko dira.

2) 11. artikuluko 2. puntuko g) letran adierazitako irizpidean («Beharrezko baliabideen eta proposatutako helburuen arteko koherentzia») gutxienez 5 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ere onartzeko modukoak izan daitezke, baina eskatutako baliabideak gutxituta.

2.– Deialdi honen barruan diruz lagundu daitezkeen proiektuak zehazteko prozedura norgehiagoka izango da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.4 artikuluan xedatutakoa betez; hau da: aurkeztutako eskabideak alderatuta, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezarriko da, jarraian zehazten diren balorazio-irizpideen arabera, eta irizpide horiei jarraikiz balorazio handiena lortu dutenei dirulaguntza esleituko zaie, erabilgarri dagoen kredituarekin.

Proiektuak irizpide hauei jarraikiz baloratuko dira, dagozkien haztapenak eginda:

a) Aurreproiektuak egokia dela justifikatzen du, eta oinarri sendoak ditu. Azken balorazioaren % 10.

0tik 10era baloratuko dira proiektuak, errubrika hauei jarraituz (guztizko balorazioa justifikatutako errubriken batura izango da):

– Proiektuaren egokitasuna berariaz identifikatu eta lotzen dute egokitasun hori egiaztatzen duten joera, azterlan, txosten edo arauekin. Gehienez ere 2 puntu.

– Proiektuaren egokitasuna berariaz identifikatu eta lotzen dute deialdiaren xedeei buruzko 1. artikuluan adierazitako lehentasunezko ildo batekin, gutxienez. Gehienez ere 2 puntu.

– Proiektuaren egokitasuna berariaz identifikatu eta lotzen dute SAREko nodoetan lehenetsitako ildo batekin, gutxienez. Gehienez ere 2 puntu.

– Proiektuaren gai nagusia zuzenean lotuta dago 5. artikuluko 1. puntuan deskribatutako lehentasunekin. Gehienez ere 2 puntu.

– Apartatu honen erredakzioan koherentzia izatea, eta apartatu honek lotura izatea proiektuaren helburu orokorren deskribapenarekin. Gehienez ere 2 puntu.

b) Aurreproiektuak bere emaitzak erabil ditzaketen enpresak aurkezten ditu, eta, gainera, enpresa horien babesa dauka: azken balorazioaren % 10.

0tik 10era baloratuko dira proiektuak, errubrika hauei jarraituz (guztizko balorazioa proiektuaren aurkezpenean egiaztatutako errubriken batura izango da):

– Beste entitate batzuekin lankidetzan egiten da proiektua. Gehienez ere 2 puntu.

– Badaude zenbait enpresa proiektuaren emaitzetan interesa dutenak, eta hala frogatzen dute aurkeztutako ebidentziek, enpresen babes-gutunen bidez. Gehienez ere 2 puntu.

– Aurkeztutako ebidentziek frogatzen dute zenbait enpresak lagundu dutela proiektua garatzen. Gehienez ere 2 puntu.

– Aurkeztutako ebidentziek frogatzen dute zenbait enpresak materiala edo instalazioak eman dituztela proiektua garatzeko. Gehienez ere 2 puntu.

– Aurkeztutako ebidentziek frogatzen dute zenbait enpresak proiektua konfinantzatzen dutela. Gehienez ere 2 puntu.

c) Aurreproiektuak norainoko zabala eta eskalagarritasuna ditu: azken balorazioaren % 20.

0tik 10era baloratuko dira proiektuak, errubrika hauei jarraituz (guztizko balorazioa justifikatutako errubriken batura izango da):

– Norainokoa: hartzaile objektibo potentzialak, proiektuaren emaitzak inplementatu ditzaketenak. Gehienez ere 3 puntu.

– Eskalagarritasuna: zer baliabide behar diren proiektuaren erabilgarritasuna edo balioa zabaltzeko, mantentzeko eta, are, hobetzeko, hartzaile kopurua handitu ahala. Gehienez ere 2 puntu.

– Proiektuaren gardentasuna eta hedapena haren plangintzan jasota daude. Gehienez ere 5 puntu.

d) Proposatutako helburuen koherentzia eta anbizioa: azken balorazioaren % 10.

0tik 10era baloratuko dira proiektuak, errubrika hauei jarraituz (guztizko balorazioa justifikatutako errubriken batura izango da):

– Helburuen deskribapena: helburu orokor eta espezifikoen egokitasuna eta deskribapena. Gehienez ere 4 puntu.

– Helburuen adierazleak eta jomugak: helburuetarako definitutako adierazleen eta jomugen xehetasunak. Gehienez ere 2 puntu.

– Transferentzia: transferentzia-helburuen definizioa eta xehetasunak. Gehienez ere 4 puntu.

e) Proiektuaren faktore berritzailea: azken balorazioaren % 25.

0tik 10era bitartean baloratuko dira proiektuak, haien helburura ondoen egokitzen den errubrika hautatuz (ezin dira puntuak metatu):

– Proiektuaren helburua dagoeneko zabalduta dago Euskal Autonomia Erkidegoko LHn. Ebaluatzaileak gutxienez 5 ikastetxeren ebidentziak ditu. Kasu horretan, ez da proiektua baloratu behar, ez baitu betetzen deialdiaren helburua.

– Proiektuaren helburua ezaguna da, hari buruzko erreferentziak daude edo LHn hein batean aplikatzen da. Gehienez ere 4 puntu.

– Proiektuaren helburua ezaguna da, hari buruzko erreferentziak daude edo hein batean aplikatzen da enpresa-ingurunean, baina ez LHn. Gehienez ere 8 puntu.

– 10 puntu, ez badago erreferentzia hurbilik, enpresetan aplikatu dela dioenik; proiektuaren arabera; hortaz, LH enpresa-sarearen bultzatzaile izango litzateke.

f) Proiektuaren plangintza-maila: azken balorazioaren % 10.

0tik 10era baloratuko dira proiektuak, errubrika hauei jarraituz (guztizko balorazioa justifikatutako errubriken batura izango da):

– Deialdi honen xede den ikasturterako aurkeztutako plangintzak bermatzen du aurreikusitako helburuak betetzea. Gehienez ere 2 puntu.

– Deialdi honen xede den ikasturterako aurkeztutako plangintza zehatza eta koherentea da. Errubriken batukaria. Gehienez ere 3 puntu.

– Deialdi honen xede den ikasturterako aurkeztutako plangintza zorrotza da, baina, aldi berean, egingarria. Errubriken batukaria. Gehienez ere 2 puntu.

– Deialdi honen xede den ikasturterako aurkeztutako plangintzak dauden arriskuak identifikatzen ditu, bai eta, haiek gauzatzen badira, egin beharreko ekintzak ere. Gehienez ere 3 puntu.

g) Beharrezko baliabideen eta proposatutako helburuen arteko koherentzia: azken balorazioaren % 15.

0tik 10era baloratuko dira proiektuak, errubrika hauei jarraituz (guztizko balorazioa justifikatutako errubriken batura izango da):

– Eskatutako giza baliabideen eta ezarritako helburu espezifikoen arteko optimizazioa baloratzen da. Gehienez ere 2 puntu.

– Beharrezko diren giza baliabideen eta helburu orokorren arteko optimizazioa baloratzen da (espero izandako inpaktua). Gehienez ere 2 puntu.

– Beharrezko diren giza baliabideen eta proiektuaren norainokoaren eta eskalagarritasunaren arteko optimizazioa baloratzen da. Gehienez ere 2 puntu.

– Ikastetxearen konpromisoa. Gehienez ere 4 puntu.

Dirulaguntza eskuratzeko, gutxienez gehieneko balorazioaren % 50 lortu behar dute proiektuek.

3.– Irizpide bakoitzeko puntuazioak 1etik 10era bitarteko eskala batean adieraziko dira, dezimalik gabe: puntuaziorik txikienari 1 dagokio, eta, handienari, 10. Proiektu bakoitzaren azken balorazioa irizpideotako bakoitzean lortutako puntuazioen batuketa haztatuaren bitartez lortuko da.

4.– Lankidetzako proiektuak batera baloratuko dira. Lankidetzako proiektu bat aukeratuko balitz, dagokien dirulaguntza banan-banan eman eta ordainduko zaie entitate laguntzaileei, bakoitzak justifikatzen dituen eta bakoitzari egotz dakizkiokeen gastuen arabera.

12. artikulua.– Prozedura izapidetzea.

1.– Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariak izango du laguntzak emateko prozedura bideratzeko eskumena.

2.– Balorazio-batzorde bakar bat eratuko da aurkeztutako eskabideak aztertu, ebaluatu eta hautatzeko; kide anitzeko organo gisa jardungo du, eta hauek izango dira kideak:

a) Batzordeburua: Rikardo Lamadrid Intxaurraga jauna, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria.

b) Bokalak:

M.ª José Barriola Baraibar andrea, TKNIKA EAEko Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroko arloko zuzendaria.

Juan Carlos Molinero Montes jauna, TKNIKA EAEko Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroko arloko zuzendaria.

Laura Oleaga Pérez de Mendiguren andrea, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzako teknikaria; idazkari-lanak egingo ditu, eta hitza izango du, baina botorik ez.

13. artikulua.– Ebazteko, jakinarazteko eta publikotasuna emateko prozedura.

1.– Deialdi honetan aurkeztutako eskabideak bi prozeduratan izapidetuko dira, eta, horiek ebaztea, interesdunek planteatutako gai guztiak erabakita, Lanbide Heziketako sailburuordeari dagokio, balorazio-batzordeak proposatuta.

2.– Hartzen den ebazpenak erabakiko du eskatutako dirulaguntzak emango diren ala, hala badagokio, ukatu egingo diren; lehenengo egoeran, adierazi behar dira pertsona edo erakunde onuradunaren izena edo izen soziala, zer ikastetxe den, zer proiektu finantzatu den, eta zenbateko dirulaguntza eman zaion. Horrez gain, nortasunik gabeko elkarteak badira, idatziz adieraziko dira elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa. Ukatutako eskabideei dagokienez, eskatzaileen izena edo izen soziala eta laguntza zergatik ukatu den adieraziko du ebazpenak.

3.– Aurreko paragrafoan aipatzen den ebazpenak ez du administrazio-bidea agortzen, eta interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute horren kontra Hezkuntzako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

4.– Ebazpen hori argitara emango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan (https://www.euskadi.eus/tablon-electronico-anuncios), eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu jakinarazpen-ondorioak. Ebazpenek barnean hartuko dituzte alderdi hauek: emandako dirulaguntzen zerrenda, eta ukatuena, zenbatekoak adierazita lehen kasuan, eta ukatzeko arrazoiak bigarrenean. Prozeduratik kanpo utzi diren eskaeren zerrenda ere barnean hartuta egongo da.

5.– Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: interesdunei jakinarazpen-abisuak bidaltzea, eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara mezuak bidaliz. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen eginaren ondoriorik izango.

6.– Prozedura ebazteko eta ebazpena pertsona interesdunei jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdiaren agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; epea igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, dirulaguntzaren eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1a artikuluan xedatutako ondoreetarako.

7.– Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan hasita dauden baina oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaituta egotea.

14. artikulua.– Justifikazioa.

1.– Dirulaguntzen justifikazioa Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da, eta, zehazki, agindu honen xede diren dirulaguntzen onuradunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, 2023ko irailaren 8a baino lehen:

a) IV. eranskina: ordezte-prozesua ondo ulertzeko beharrezkotzat jotzen diren ohar guztiak «oharrak» atalean azalduko dira.

b) V. eranskina: proiektuaren azken memoria, non, besteak beste, alderdi hauei buruzko informazioa jasoko baita: programatutako helburuak zenbateraino lortu diren; proiektuaren garapena, kontrol-prozesua eta jarraipena; hobetzeko proposamenak; lortutako eraginaren ebaluazioa, eta garatutako transferentzia-ekintza eta -baliabideak.

c) Ordezko irakasleen lan-kontratuaren kopia autentikoa, 6.1.a) artikuluan aurreikusitako kasuan bakarrik.

d) Ordezko irakasleen nominen kopia autentikoak, diruz lagundu daitekeen gastuaren estaldura-aldia osoari dagozkionak (agindu honen 6.3 artikuluan ezarrita dago estaldura-aldia).

2.– Justifikazio-agiriak aurkezteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bitarteko elektronikoak erabili beharko dira, honako helbide honetako «Nire karpeta» atalaren bitartez:

https://www.euskadi.eus/nirekarpeta

3.– Lankidetzako proiektuak badira, ordezkari edo ahaldun bakar gisa izendatutako pertsonaren ardura izango da jasotako dirulaguntza osoa justifikatzeko dokumentazioa aurkeztea. Horretarako, proiektuan parte hartzen duen kide bakoitzaren gastu diruz lagungarriak justifikatzeko dokumentazioa bildu beharko du.

4.– Diruz lagundutako zenbateko osoa eskuratzeko, ordezko langileak kontratatzeari egotz dakizkiokeen kostuak jasotako zenbatekoa baino handiagoak edo parekoak izan behar dira.

15. artikulua.– Dirulaguntzen ordainketa.

1.– Dirulaguntzak hiru zatitan ordainduko dira, honela:

a) Lehenengo ordainketan, onuradun bakoitzari emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 ordainduko da, 18.1 artikuluan adierazten den epea bukatutakoan, baldin eta bitarte horretan dirulaguntzari uko egin ez bazaio, eta, betiere, 2022ko urriaren 28a baino lehen III. eranskina (Liberatutako eta ordezko irakasleen ordu-dedikazioaren ziurtagiria) aurkeztu ondoren. Ziurtagiriarekin batera, Hezkuntza Jardueren Dokumentua (HJD) erantsiko da, bertsio itxian, behar bezala beteta eta ikastetxeko zuzendariak sinatuta. Bertan adieraziko da, «Berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektu» gisa, diruz lagundutako proiektuan aritzen diren irakasle titular eta ordezkoen liberazioa.

b) Bigarren ordainketan, onuradun bakoitzari emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 60 ordainduko da, 2023ko ekitaldian, proiektuaren % 50 garatu ostean, betiere Lanbide Heziketako Sailburuordetzak aldeko ebaluazioaren txostena egiten badu, eta ordezko irakasleen gastuen zerrenda 2023ko apirilaren 1ean aurkeztu ondoren (IV. eranskina).

c) Hirugarren ordainketan, gainerakoa ordainduko da; hots, gainerako % 20a, diruz lagundutako proiektua amaitutakoan, izandako gastu guztiak justifikatu eta aurreko artikuluko apartatu guztiak bete ostean.

2.– Hautatutakoak lankidetza-proiektuak badira, proiektua lankidetzan sortu eta garatu duten erakunde guztiei banan-banan eman eta ordainduko zaizkie dagozkien zenbatekoak.

3.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean agertu beharko du. Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak eskuragarri jarritako hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko da, helbide honetan:

https://www.euskadi.eus/altaterceros

16. artikulua.– Baldintzak ez betetzea, aldatzea eta itzulketa-prozedura.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako kasuak nahiko arrazoi izango dira dirulaguntzak ezeztatzeko eta berandutze-interesekin batera itzularazteko, dirulaguntza ordaintzen denetik itzularaztea egokia dela erabaki arteko interesak, hain zuzen ere. Horretarako, egoki ikusten dituen egiaztapenak egiteko eskumena izango du Hezkuntza Sailak.

2.– Dirulaguntza emateko kontuan izan ziren baldintzak betetzen ez badira, jasotako dirua (guztia edo zati bat) eta dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio. Hala ezartzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeen eta horiek itzultzearen erregimen orokorra arautzen duen 698/1991 Dekretuak.

3.– Lehen esandakoa alde batera utzi gabe, dirulaguntza emateko kontuan izan ziren baldintzetan aldaketaren bat gertatzen bada, dirulaguntza emateko ebazpena ere aldatu egin ahal izango da, betiere agindu honetan onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira (4. artikulua), salbu eta ezinbesteko arrazoiren bat suertatu eta, ondorioz, betetzea ezinezkoa gertatzen bada eta behar bezala justifikatuta badago Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzaren aurrean. Ezinbestetzat joko da Kode Zibilaren 1105 artikuluan xedatutakoarekin bat datozen kasuak. Halakoetan, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak likidazio-ebazpena emango du eta, han, eman diren dirulaguntzen zenbatekoak doituko dira.

4.– Justifikazioa aurkezten ez bada, edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan azaldutako kausaren bat jazoz gero, dirulaguntza osorik edo zati bat kobratzeko eskubidea galduko da.

17. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribaturen batek helburu bererako ematen dituenekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jasoz gero, horren berri eman beharko da. Izan ere, gainfinantzaketarik gertatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

2.– Betiere, 2022-2023 ikasturtean, ezingo dira bateratu deialdi honen bidez diruz lagundutako proiektuetan parte hartzen duten irakasleen liberazio osoa edo partziala finantzatzeko jasotako dirulaguntzak eta Hezkuntza Sailaren beste laguntza edo dirulaguntza batzuk, edozein dela ere horiek gauzatzeko baliatutako tresna juridikoa.

18. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Dirulaguntzen onuradunek, proiektua egiteko, baldintza eta betebehar hauek hartu beharko dituzte kontuan:

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Horretarako, dirulaguntza eman zaiela jakinarazi eta hamabost eguneko epean onuradunek berariaz eta idatziz uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

2.– Laguntza zertarako eman den, hartarako erabili beharko dute.

3.– Lanbide Heziketako Sailburuordetzari justifikatzea deialdian ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela.

4.– Jasotako funtsak zertarako erabili diren frogatzen duten agiriak gordetzea, baita elektronikoak ere, baldin eta egiaztatu eta kontrolatu ahal badira.

5.– Lanbide Heziketako Sailburuordetzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman beharko diete, beren jardunean ari direla, deialdi honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz eskatzen dieten informazioa.

6.– Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatutatik agindu honetako helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskuratuz gero, horren berri eman beharko diote Lanbide Heziketako Sailburuordetzari.

7.– Laguntza ematerakoan kontuan izandako gorabeheraren bat aldatzen bada, horren berri eman beharko diote Lanbide Heziketako Sailburuordetzari.

8.– Diruz lagundutako proiektu bakoitzaren kontrolaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren berri eman beharko diote Lanbide Heziketako Sailburuordetzari, dela zuzenean, dela TKNIKA Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroaren bitartez.

9.– Jasotako dirulaguntzen berri emateko neurriak hartzea. Neurri horien euskarrietan –informatikoetan zein bestelakoetan– adierazpen hau sartzera mugatuko dira: «Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzak finantzatu du jarduera hau».

10.– Onuradunek eskatutako jarduera amaitu arte mantendu beharko dute jarduera horretarako liberatutako irakaslea. Justifikatutako arrazoiak direla-eta pertsona horrek ezin badu proiektua amaitu arte jarraitu, ikastetxeak hura ordezteko baimena eskatuko dio Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari, haren onespena lortzeko, eta proiektuaren ardura bere gain hartuko duen pertsonari buruzko datuak adierazi beharko ditu, bai eta aldaketaren arrazoia ere.

11.– Dirulaguntza jaso duten onuradun guztiek eskola-ordurik gabe utzi beharko dute liberatutako irakaslea proiektuaren fitxan adierazitako astegunetan. Egoera hori Hezkuntza Jardueren Dokumentuaren (HJD) bertsio itxian jaso behar da, «ProyVPVFP» gisa.

12.– Honako hauetan xedatutako betebehar guztiak betetzea: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikulua.

19. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu eta izen honetako tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira. Erakunde laguntzaileentzako eta lanbide heziketako ikastetxeentzako laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: laguntza ekonomikoen eskaerak izapidetzea, parte-hartzaileak eta/edo interesdunak identifikatuta. Entitate laguntzaileetarako dirulaguntzak.

Legitimazioa:

1.– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko.

2.– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

3.– 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

1.– Autonomia-erkidegoko beste organo batzuk.

2.– Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: https://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/039900-capa2-es.shtml

Araudia:

1.– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)

2. – 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honetan araututako dirulaguntzei honako hauetan xedatutakoa aplikatuko zaie: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 15a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA

A (Organo kudeatzailea)

TEKNOLOGIAREN ETA IKASKUNTZA AURRERATUEN ZUZENDARITZA

1. Datu pertsonalak

Titularra (zenbait ikastetxeren artean lankidetzan garatutako proiektuak badira, proiektuaren buru den ikastetxearena).

Erakundearen izena: ……

Identifikazio-dokumentua: …… Zenbakia: ……..

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak zer lurralde edo probintziatan dauden jasota: ……..

Ordezkaria

Izen-abizenak: ……

Identifikazio-dokumentua: …… Zenbakia: ……..

Erakundearen barruko kargua:.....

Posta elektronikoa: ……

Telefono-zenbakia: ……..

(Lankidetzako proiektuak aurkezten dituzten ikastetxeek soilik bete beharrekoa)

Titularra

Erakundearen izena: ……

Identifikazio-dokumentua: …… Zenbakia: ……..

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak zer lurralde edo probintziatan dauden jasota: .....……..

Ordezkaria

Izen-abizenak: ……

Identifikazio-dokumentua: …… Zenbakia: ……..

Erakundearen barruko kargua:.....

Posta elektronikoa: ……

Telefono-zenbakia: ……

Titularra

Erakundearen izena: ……

Identifikazio-dokumentua: …… Zenbakia: ……

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak zer lurralde edo probintziatan dauden jasota: ……

Ordezkaria

Izen-abizenak: ……

Identifikazio-dokumentua: …… Zenbakia: ……

Erakundearen barruko kargua:……

Posta elektronikoa: ……

Telefono-zenbakia: ……

Titularra

Erakundearen izena: ……

Identifikazio-dokumentua: …… Zenbakia: ……

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak zer lurralde edo probintziatan dauden jasota: ……

Ordezkaria

Izen-abizenak: ……

Identifikazio-dokumentua: …… Zenbakia: ……

Erakundearen barruko kargua:……

Posta elektronikoa: ……

Telefono-zenbakia: ……

2. Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako bidea

- Elektronikoa

3. Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza

☐ Euskara ☐ Gaztelania

4. Proiektuaren datuak

PROIEKTUAREN ESPARRUA – Hautatu bakar bat			
Digitalizazioa: berrikuntza teknologikoaren eta sistema adimendunen esparrua		Jasangarritasuna: biozientzien eta jasangarritasunaren esparrua	

LANBIDE ARLOA

PROIEKTUA HONAKO HAUEN APLIKAZIO SISTEMATIKOAREN ONDORIOA DA:					
-	Berrikuntza-errutinak.	**BAI**		**EZ**	
-	Adimen lehiakorra.	**BAI**		**EZ**	
-	Beste bide batzuk; zehaztu zein				

ZERTAN LAGUNTZEN DIEN PROIEKTUAK GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUEI		
GJH		NOLA
	POBREZIA AMAITZEA	
	ZERO GOSEA	
	OSASUNA ETA ONGIZATEA	

	KALITATEZKO HEZKUNTZA	
	GENERO-BERDINTASUNA	
	UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	
	ENERGÍA ESKURAGARRIA ETA EZ-KUTSAGARRIA	
	LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	
	INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK	
	DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	
	HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	
	EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	
	KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	
	ITSASPEKO BIZIA	
	LEHORREKO EKOSISTEMEN BIZIA	
	BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK	
	HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK	

5. Erantzukizunpeko adierazpenak

Bateragarritasun-adierazpenak

Hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:

☐ Ez da xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik.

☐ Itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta egotea, hau da, EAEko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozeduraren batean.

Prozedura

☐ Laguntza edo dirulaguntza eskatu diot administrazio publiko edo erakunde pribatu bati xede eta helburu berarekin eta eman egin didate.

☐ Laguntza edo dirulaguntza eskatu diot administrazio publiko edo erakunde pribatu bati xede eta helburu berarekin eta eskaera ebazteke dago.

Erakundea	Eskatutako dirulaguntza	Emandako dirulaguntza	Ebatzi gabeko dirulaguntza

Beste adierazpen batzuk

Hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:

- Ez du zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea

galarazten dionik.

- Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, espresuki aipatuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak.
- Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere. Betekizun biek iraun behar dute emandako dirulaguntzak likidatu arte; beraz, egiaztatu egingo da bete egiten direla bai emateko orduan bai ordaintzeko orduan.
- Indarrean dauden arauetan ezarritako eskakizunak betetzen ditu.

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. artikuluan ezarritako egoeraren batean ez egotea.
- Eskabide honetan eta honi gehitutako dokumentuetan adierazitako datu guztiak egiazkoak dira.

6. Lehen aurkeztutako agiriak

Baimena ematen dut dokumentu hauek kontsultatzeko:

Dokumentuaren izena	Zer egunetan eman den	Zer organotan eman den

Lanbide Heziketako Sailburuordetzak, zuzenean edo TKNIKA Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroaren bidez, dagokionaren arabera, aurkeztutako datuak erkatu eta behar diren egiaztapenak egin ahal izango ditu, dirulaguntzak behar bezala esleitzeko.

7. Baimenak

Organo izapidegileak ofizioz egiaztatzekoak.

Araudi aplikagarriarekin bat etorriz, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko (GSDO) betebeharrak egunean izatearen datuak.
- Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia)

☐ EZ DUT ONARTZEN prozedura honen organo izapidegileak ofizioz egiaztapenak egitea (39/2015 Legearen 28. artikulua.).

Oharra: onarpenik eman ezean, prozeduran eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira.

8. Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

Datu pertsonalak tratatu eta izen honetako tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira. «Laguntza eta dirulaguntzak Lanbide Heziketako ikastetxeentzat eta entitate laguntzaileentzat».

- Arduraduna: Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.
- Helburua: laguntza ekonomikoen eskaerak izapidetzea, parte-hartzaileak eta/edo interesdunak identifikatuta. Erakunde laguntzaileentzako dirulaguntzak.
- Legitimazioa:
  - Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.
  - 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
  - 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- Hartzaileak:
  - Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
  - Ekonomia eta Ogasun Saila.
- Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.
- Informazio gehigarria:
  - Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultagai duzu helbide honetan:www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/039900-capa2-es.shtml
  - Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra
  - (https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)
  - 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673

,

(lekua) (data)

(Titularraren sinadura. Lankidetzan garatutako proiektuen kasuan, ikastetxe bakoitzaren titularrek sinatuko dute)

II. ERANSKINA
PROIEKTUAREN FITXA

1. PROIEKTUAREN DATU OROKORRAK

PROIEKTUAREN IZENBURUA

HASIERA-DATA		**AMAIERA-DATA**	

PROIEKTUAREN IRAUPENA	

IKASTETXEEN ARTEKO LANKIDETZA BIDEZ GARATUTAKO PROIEKTUA DA:	**BAI**		**EZ**	

PROIEKTUAREN LIDERGOA DUEN IKASTETXEA (lankidetzan garatutako proiektua bada)		
Ikastetxearen izena:	Identifikazio-zenbakia	

IKASTETXE PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ZERRENDA					
Ikastetxearen kodea eta izena:	Publikoa	Itunpekoa	Lurraldea		
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA

PROIEKTUA BAT DATOR NODOEK DEFINITUTAKO ILDO ESTRATEGIKOEKIN.	BAI		EZ	
Erantzuna baiezkoa bada, zein proiekturekin?				
Biozientzien nodoa	▪ ▪			
Fabrika digital eta konektatuaren nodoa.	▪ ▪			
Fabrikazio aurreratuaren nodoa	▪ ▪			
Energia nodoa	▪ ▪			

PROIEKTUAREN LABURPENA

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA ETA ZERGATIA – Justifikazioa eta egokitasuna

2. PROIEKTUAREN BALIABIDEAK

GIZA BALIABIDEAK Proiektua garatzeko behar diren giza baliabideak, profilak eta ordu-dedikazioa identifikatzea			
Jatorrizko ikastetxea (izena eta identifikazio-zenbakia)			
Parte-hartzaileen izen-abizenak eta NAN zenbakia	Gaitasun-profila (eskatutako profilaren deskribapena)	Ordu-dedikazioa (*)	Ikastetxea
Jatorrizko ikastetxea (izena eta identifikazio-zenbakia)			
Parte-hartzaileen izen-abizenak eta NAN zenbakia	Gaitasun-profila (eskatutako profilaren deskribapena)	Ordu-dedikazioa (*)	Ikastetxea
Jatorrizko ikastetxea (izena eta identifikazio-zenbakia)			
Parte-hartzaileen izen-abizenak eta NAN zenbakia	Gaitasun-profila (eskatutako profilaren deskribapena)	Ordu-dedikazioa (*)	Ikastetxea
Jatorrizko ikastetxea (izena eta identifikazio-zenbakia)			
Parte-hartzaileen izen-abizenak eta NAN zenbakia	Gaitasun-profila (eskatutako profilaren deskribapena)	Ordu-dedikazioa (*)	Ikastetxea

(*) Itunpeko ikastetxeen kasuan, lanaldiaren ehunekoa adierazi. Publikoen kasuan, liberazioko asteko eskola-orduen kopurua (17 ordu lanaldi oso bat izanik)

-BALIABIDE MATERIALAK: Proiektua garatzeko beharrezkoak diren baliabideak eta horien ezaugarriak identifikatzea.		
IKASTETXEAN ERABILGARRI DAUDEN BALIABIDEAK		
Baliabidea	**Ikastetxea**	**€ Baliabidearen balioespena**

PROIEKTURAKO ESKURATU BEHARKO LIRATEKEEN BALIABIDEAK			
Baliabidea	**Ikastetxea**	**€ Baliabidearen balioespena**	**– Data (*)**

(*) Zer egunetarako eduki behar duen ikastetxeak proiektuaren baliabide hori

PROIEKTUARI EMANDAKO BABES-MAILA				
Enpresaren izena	Enpresaren ordezkaria	Hornitzailea		Hartutako lankidetza-konpromisoa
		Bai	Ez	

3. PROIEKTUAREN HELBURUAK

PROIEKTUAREN HELBURU OROKORRAK(Proiektuaren zergatia, azken helburuak, LHri egindako ekarpenak)	**ADIERAZLEA(K)**	**HELBURU-BALIOAK**
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		

HELBURU ESPEZIFIKOAK/MUGARRIAK (Helburu orokorrak lortzeko ekintza zehatzak)	**DENBORA-BANAKETA**	**ADIERAZLEA(K)**	**HELBURU-BALIOAK**
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			

BALIOZKOTZE-EKINTZAK (Proiektua bide onetik doala objektiboki berresteko ekintzak)	**DENBORA-BANAKETA**	**ADIERAZLEA(K)**	**HELBURU-BALIOAK**
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			

TRANSFERENTZIA-EKINTZAK (proiektua gauzatzean eskuratutako ezagutza irakasleen, ikasleen eta ETEen artean zabaltzeko ekintzak)	**DENBORA-BANAKETA**	**ADIERAZLEA(K)**	**HELBURU-BALIOAK**
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			

Planifikatutako ekintza bakoitzeko, honako hauek definitu beharko dira:

- TENPORIZAZIOA: ekintza zein egunetarako egin behar den. Denborek mugatuta egon behar dute; ez dira baliozkotzat joko "ikasturtea" edo "hiruhilekoa" terminoak.
- ADIERAZLEAK: planifikatutako ekintza bakoitzaren helburuak zein neurritan lortzen ari diren jakiteko balio behar dute. Kuantitatiboak. Esaterako: ordu-kopurua; eginda, bai/ez; entsegu kopurua.
- HELBURUA: zer balio lortu nahi den adierazle bakoitzetik. Adibidez: 5 ordu; eginda bai; 2 saiakuntza.

4. PROIEKTUAREN ARRISKUAK(Zehaztu zer arrisku izan daitezkeen proiektuaren garapenean eta zein diren aurreikusitako ekintza zuzentzaileak)

Arriskuak.	Zerikusia duen plangintzaren atala	Arriskua zuzentzeko edo arintzeko ekintzak
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		

III. ERANSKINA

LIBERATUTAKO ETA ORDEZKO IRAKASLEEN ORDU-DEDIKAZIOAREN ZIURTAGIRIA

(Irakasle eta proiektu bakoitzeko, fitxa bat beteko da)

Zuzendariaren abizenak eta izena:……

Nortasun-agiriaren zenbakia:……

Zer ikastetxe ordezkatzen duen:……..

Zuzendaria den aldetik

ZIURTATZEN DU ondoren azaldutako datuek zintzotasunez jasotzen dutela ordezko irakasleei dagokien Hezkuntza Jardueren Dokumentuaren (HJD) edukia.

Proiektuaren izena:……

Garapenaren eta ebaluazioaren erakunde arduraduna:……

Hasiera-data: Amaiera-data:

Proiektuaren iraupena: Ordu kopurua

LIBERATUTAKO IRAKASLEAK (Betekizuna: 2021-2022 ikasturtean ikastetxean irakasle jardun izana)	
Abizenak eta izena:	
Identifikazio-zenbakia:	
Helbide elektronikoa:	
Telefono zk.:	

Liberazio mota: Osoa ☐ Partziala ☐ Liberatutako lanaldia (erdia, herena...)

Kontratu mota: Kontratazio berria: ☐ Ikastetxeak dituen langile propioen kontratua luzatzea ☐ Liberatutako irakaslearen beraren kontratua luzatzea ☐

ORDEZKO IRAKASLEAK	
Abizenak eta izena:	
Identifikazio-zenbakia:	
Helbide elektronikoa:	
Telefono zk.:	

Ordezko irakasleen lanaldiaren ordu-banaketa ordu-dedikazio motaren arabera				
Eskola-orduak (EO)	Ordu osagarriak (OO)	Orduak guztira (EO + OO)	Aste kopurua	
			EO	OO
			33	35

Ordezko irakasleek emandako lanbide-moduluak
1.
2.
3.
4.
5.

Agiri bidezko justifikazioa: Liberatutako eta ordezko irakasleen Hezkuntza Jardueren Dokumentua (HJD), bertsio itxian, behar bezala beteta, eta ikastetxeko zuzendariak sinatuta.

_____ , _____

(lekua) (data)

(Ikastetxeko zuzendariaren sinadura)

IV. ERANSKINA

JASOTAKO DIRULAGUNTZARI EGOTZ DAKIZKIOKEEN GASTUEN LABURPENA

(IRAKASLE BAKOITZEKO FITXA BAT BETEKO DA)

PROIEKTUAREN GARAPEN-ALDIARI DAGOKION LABURPENA:

1. PROIEKTUAREN DATU OROKORRAK
Proiektuaren izena:

LANBIDE ARLOA

IKASTETXEEN ARTEKO LANKIDETZA BIDEZ GARATUTAKO PROIEKTUA DA:	**BAI**		**EZ**	

PROIEKTUAREN LIDERGOA DUEN IKASTETXEA (lankidetzan garatutako proiektua bada)		
Ikastetxearen izena:	Identifikazio-zenbakia	

HASIERA-DATA		**AMAIERA-DATA**	

PROIEKTUAREN IRAUPENA	

2. IKASTETXEAREN DATU OROKORRAK		
Izena:	Identifikazio-zenbakia:	

3. LIBERATUTAKO ETA ORDEZKO IRAKASLEEN DATU OROKORRAK	
LIBERATUTAKO IRAKASLEAK (Betekizuna: 2021-2022 ikasturtean ikastetxean irakasle jardun izana)	
Abizenak eta izena:	
Identifikazio-zenbakia:	
Helbide elektronikoa:	
Telefono zk.:	

Liberazio mota:	Osoa		Partziala		Liberatutako lanaldia (erdia, herena...)		
Kontratu mota:	Kontratazio berria:		Ikastetxeak dituen langile propioen kontratua luzatzea		Liberatutako irakaslearen beraren kontratua luzatzea		

ORDEZKO IRAKASLEAK	
Abizenak eta izena:	
Identifikazio-zenbakia:	
Helbide elektronikoa:	
Telefono zk.:	

4. JASOTAKO DIRULAGUNTZARI EGOTZ DAKIZKIOKEEN ORDEZKO IRAKASLEEN GASTUEN ZERRENDA

Likidazio epea	Hileko ordainsariak (1)	Erakunde eskatzailearen konturako hileko karga sozialak (2)	Proiektuari egotzitako kostua, guztira (1+2)	Jasotako dirulaguntzari egotz dakizkiokeen ordezkapen-orduen kopurua		Jasotako dirulaguntzari egotz dakizkiokeen ordezkapen-orduak guztira
				EO	OO	

EO ESKOLA-ORDUAK	EO: ORDU OSAGARRIAK

Aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa	
Araudi-erreferentzia:	
Hitzarmeneko ordu-kopurua	

5. OHARPENAK

,

(lekua) (data)

(titularraren sinadura)

V. ERANSKINA

PROIEKTUAREN AMAIERAKO MEMORIA

ZEHAZTAPENA
Proiektuaren izena:

ZER ARLOREKIN DAGOEN LOTUTA

LANBIDE ARLOA

IKASTETXEEN ARTEKO LANKIDETZA BIDEZ GARATUTAKO PROIEKTUA DA:	**BAI**		**EZ**	

PROIEKTUAREN LIDERGOA DUEN IKASTETXEA (lankidetzan garatutako proiektua bada)		
Ikastetxearen izena:	Identifikazio-zenbakia	

HASIERA-DATA		**AMAIERA-DATA**	

PROIEKTUAREN IRAUPENA:	

1. PROIEKTUAREN EMAITZEN EBALUAZIOA

XEDE OROKORREN BETETZE-MAILA	ADIERAZLEA(K)	HB	LB	D (%)
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				

HB helburu-balioak	**LB: lortutako balioak**	**D: desbideratzea**

EMAITZEN EBALUAZIOA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

2. PROIEKTUAREN BILAKAERAREN JARRAIPENA

KONTROL ZK.	1	KONTROL-DATA	

XEDE ESPEZIFIKOEN BETETZE-MAILA	ADIERAZLEA(K)	HB	LB	D%
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				

OHAR OROKORRAK, NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA HAIEN ONDORIOAK

BALIOZKOTZE-EKINTZAK	ADIERAZLEA(K)	HB	LB	D%
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				

OHAR OROKORRAK, NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA HAIEN ONDORIOAK

TRANSFERENTZIA-EKINTZAK	ADIERAZLEA(K)	HB	LB	D (%)
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				

OHAR OROKORRAK, NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA HAIEN ONDORIOAK

ARRISKUAK	GERTATU AL DA? BAI / EZ	NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA HAIEN ONDORIOAK

HB helburu-balioak	LB: lortutako balioak	D: desbideratzea

3. PROIEKTUAREN GARAPENAREN EBALUAZIOA

XEDE ESPEZIFIKOEN BETETZE-MAILA	ADIERAZLEA(K)	HB	LB	D (%)
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				

OHAR OROKORRAK, NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA HAIEN ONDORIOAK

BALIOZKOTZE-EKINTZAK	ADIERAZLEA(K)	HB	LB	D (%)
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				

OHAR OROKORRAK, NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA HAIEN ONDORIOAK

TRANSFERENTZIA-EKINTZAK	ADIERAZLEA(K)	HB	LB	D (%)
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				

OHAR OROKORRAK, NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA HAIEN ONDORIOAK

ARRISKUAK	GERTATU AL DA? BAI / EZ	NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA HAIEN ONDORIOAK

HB helburu-balioak	LB: lortutako balioak	D: desbideratzea

PARTE HARTZEAREN MAILA

Jatorrizko ikastetxea (izena eta identifikazio-zenbakia)					
Liberatutako irakasleen abizenak eta izena	NA	Liberazio mota	PLO	EO	D (%)

Jatorrizko ikastetxea (izena eta identifikazio-zenbakia)					
Liberatutako irakasleen abizenak eta izena	NA	Liberazio mota	PLO	EO	D (%)

Jatorrizko ikastetxea (izena eta identifikazio-zenbakia)					
Liberatutako irakasleen abizenak eta izena	NA	Liberazio mota	PLO	EO	D (%)

Jatorrizko ikastetxea (izena eta identifikazio-zenbakia)					
Liberatutako irakasleen abizenak eta izena	NA	Liberazio mota	PLO	EO	D (%)

Jatorrizko ikastetxea (izena eta identifikazio-zenbakia)					
Liberatutako irakasleen abizenak eta izena	NA	Liberazio mota	PLO	EO	D (%)

NA: nortasun-agiriaren zenbakia	**PLO: programatutako liberazio-orduak**	**EO: egindako orduak**	**D: desbideraketa**

LIBERATUTAKO IRAKASLEEK EGINDAKO EBALUAZIOA, LORTUTAKO EMAITZEI ETA PROIEKTUAREN GARAPENARI BURUZ
Alderdi positiboak
1.
2.
3.
4.
5.
Alderdi negatiboak
1.
2.
3.
4.
5.
Hobetzeko proposamenak.
1.
2.
3.
4.
5.

ENPRESA LAGUNTZAILEAK EGINDAKO EBALUAZIOA, LORTUTAKO EMAITZEI ETA PROIEKTUAREN GARAPENARI BURUZ
Alderdi positiboak
1.
2.
3.
4.
5.
Alderdi negatiboak
1.
2.
3.
4.
5.
Hobetzeko proposamenak.
1.
2.
3.
4.
5.

4. PROIEKTUAREN ERAGINA

Eragina neurtzeko adierazleak

Prestakuntza arautua (deskribapena, zikloa eta dagokion heziketa-modulua)	E	A	Ordu-kopurua	Ikasle kop.	Prestakuntza ematen duen ikastetxea	
					Ikastetxearen izena	IFZ
1.						
2.						
3.						
4.						
5.						

Enplegurako prestakuntza.	E	A	Ordu-kopurua	Ikasle kop.	Prestakuntza ematen duen ikastetxea	
					Ikastetxearen izena	IFZ
1.						
2.						
3.						
4.						
5.						

Enpresentzako prestakuntza	E	A	Ordu-kopurua	Ikasle kop.	Ikastetxe eta enpresa onuradunak	
					Ikastetxearen eta enpresaren izena	IFZ
1.						
2.						
3.						
4.						
5.						

E: Egindakoa	A: Aurreikusitakoa

Eragina neurtzeko adierazleak

Irakasleentzako prestakuntza	E	A	Ordu-kopurua	Ikasle kop.	Prestakuntza ematen duen ikastetxea eta ikastetxe onuradunak	
					Ikastetxeen izena	IFZ
1.						
2.						
3.						
4.						
5.						

Beste zerbitzu osagarri batzuk	Zerbitzuaren deskribapena	Zerbitzua ematen duen ikastetxea eta erakunde onuradunak	
		Ikastetxeen izena	IFZ
1.			
2.			
3.			
4.			

Garatutako materialak	Materialen deskribapena	Nola partitu den materiala gainerako ikastetxeekin
1.		
2.		
3.		
4.		

Dibulgazio-jardunaldiak	Jardunaldiaren deskribapena	Parte-hartzaile kopurua
1.		
2.		
3.		
4.		

Garatutako edo aurreikusitako beste ekintza batzuk	E	A	Ekintzen deskribapena	Oharrak

E: egindakoa	A: aurreikusitakoa

5. PROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKOA (lankidetzan garatutako proiektua bada, ikastetxe bakoitzak bere memoria aurkeztuko du)

Ikastetxearen izena				IZ			
Ordezko irakasleen abizenak eta izena	Nortasun-agiriaren zenbakia	Ordainsariak (1)	Erakunde eskatzailearen konturako karga sozialak (2)	Kostua, guztira (1.+2)	Jasotako dirulaguntzari egotz dakizkiokeen ordezkapen-orduen kopurua		Jasotako dirulaguntzari egotz dakizkiokeen ordezkapen-orduak guztira
					EO	OO	

Aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa:

- ***Hitzarmeneko ordu-kopurua: .....***
- ***Araudi-erreferentzia: .....***

Proiektuaren finantzaketa-iturrien azken laburpena					
Eskatutako dirulaguntza (euroak)	Deialdi honetan jasotako dirulaguntza (euroak)	Jasotako dirulaguntzak (euroak)	Justifikatutako gastuak (euroak)	Aldea (euroak)	Aldea (%)

Agiri bidezko justifikazioa
• Ordezko irakasleen lan-kontratuaren kopia autentikoa, 4, 1, a) artikuluan aurreikusitako kasuan bakarrik. • Agindu honen 4.2 artikuluan ezarritako diruz lagundu daitekeen gastuaren estaldura-aldia osoari dagozkion ordezko irakasleen nominen kopia autentikoa.

_____ , _____

(lekua) **(data)**

(titularraren sinadura)